

# EDESTI-DONEA



*Apezpiko Jaunaren baimena du.*







M- 87390  
F- 96189

.2RV  
3283

# EDESTI-DONEA

DONOSTIAN

Altuna'tar Raimundo'ren Moldizteguien

1914

ADMINISTRACION





# I. Jaungoiko-Egillea

## 1. Ludia ezer-ezetik egiteaz

*1) Jaungoikoak ludia ezer-ezetik egiten du.* — Asieran Jainkoak zerua ta lurra ezer-ezetik egin zituan. Baño lurra soil-utza zan, eta urez estalia t'illundiz inguratua zegoen.

Orduan esan zuan Jainkoak: «Argia izan bedi.» T'argia izan zan. T'argia t'illundia bata bestia gandik berezitu zituan, t'argia izendatu zuan *egun*, t'illundia *gau*. Auxe izan zan lenengo eguneko lana.

*T'esan zuan Jainkoak:* «Ortzea, goi-beko urak aldebanatuko dituan sapaizabal-sendoa izan bedi.» T'olaxe egin zan: t'ortzea izendatu zuan *zeru*. Auxe izan zan bigarren eguneko lana.

*T'esan zuan Jainkoak:* «Zerupeko urak toki batian bildu bitez, ta legorra agertu bedi.» T'olaxe egin zan; ta legorra izendatu zuan *lur*, ta ur-batza *ilxaso*. — *T'esan zuan Jainkoak:* «Belar, landare ta zuaitzak lurrean erne bitez.» T'olaxe egin zan. Auxe izan zan irugarren eguneko lana.

*T'esan zuan Jainkoak:* «Ortzean argikariak izan bitez.» T'olaxe egin zan. T'antolatu zituan bi argi-nagusi: *aundiarenak* egunez, ta *lxikiarenak* gabaz agintzeko. Izarrak ere bai egin zituan. Auxe izan zan laugarren eguneko lana.

*T'esan zuan Jainkoak:* «Urak bizikariz bete bitez, ta lur ta ortze bitartean, egaztiak egan egin bezate.» Orduan Jainkoak, uretan arrañak, et'aizean egaztiak egin zituen.

T'onespendurik esan zien: «Asi t'ugaritu zaitezte» Auxe izan zan bostgarren eguneko lana.

T'esan zuan Jainkoak: «Lurrean ere, enda bereziko bizikariak, lau-ankakoak eta sugeak eta piztiak sortu bitzez.» T'olaxe egin zan.

2) Jainkoak gizona egiten du.—T'azkeneko esan zuan Jainkoak: «Gure iduri t'antzera gizona egin zagun. Ta berak agindu beza itxasoko arrain eta zeruko egazti ta lurreko pizti ta baster guzietan.» Ta lur-loiaren oreka artu-ta, gizon-gorputza eratu zuan, et'aize-bizierailea erantzirik, *Adan* izentzat ipiñi zion. Auxe izan zan seigarren eguneko lana.

3) Jainkoak Larunbata irasten du.—Jainkoak bere lanari begiratu-ta, ederretsi zuen. *Saspigarren* egunean atsedendu zan, et'onespendu ta donetu zuan egun ori.

*Ni lenengoa t'azkenekoa naiz; asiera t'amaia.* (Apoc. XXII, 13).

Jainkoak egin zituan ikuste ez diran ezin esan-al' aingeru zintzo-zoriontsu ere; baño oietatik askok arrokeriz oben egin zutelako, zulezera jaurtiki zituen. Oiek dira *aingeru-donge* edo *deabruak*.

## 2. Gizona Paradisuan

1) Adanen zintzotasuna zenbaterañokua zan Jainkoak ikusten du.—Jainkoak gizonarentzat zoragarritzko baratza aldatu zuen. Bere lurrari itxura eder t'igali gozodun zuaitz mota guziak erne-erasi zizkion et'erdi-erdian *zuaitz-bizierailea* ta on eta gaitzaren *jakintz-zuaitza* zegoen. Toki au landu ta zaitzeko eman zion Jainkoak gizonari.

T'esan zuan Jainkoak: «On eta gaitzaren *jakintz-zuaitza* utzi-ta, beste Paradisuko zuaitzak ematen dituzten igalak jan zeñiskitzu; jakintz-zuaitzetik jaten badezu ordea, ilko zera.»

2) Jainkoak Eba egiten du.—Gero esan zuan Jainkoak: «Gizona bakarrik egotea egoki ez da. Bere antzeko lagun



bat eman zaiogun.» Ta Jaunak lo-zorroa ezarri zion Adani, ta lo zetzala zaietz-ezur bat ateratzen dio ta zaietz-ezurrez *emakumea* egiten du. Adani, esnatu zanian, Jainkoak emakumea aurkestu zion. T'Adanek ikusi orduko esan zuen: «Au da nere ezurren-ezur t'aragiaren-aragi.» Adanek bere emaztea izendatu zuan *Eba*; izen orrek esan nai du: *bizi diran guzien ama*.

3) Adan ta Ebaren obena.—Gizon eta emakumearen zoria ezin eramanda, bekantzpetuta zebillen deabrua; ta obetuago eurak liluratzearren suge-itxura artu zuen. Sugeak dio emakumeari: «Zergatik Jainkoak Paradisuko zuaitzigalak jatea, zuei eragotzi?» Erantzuten du emakumeak: «Paradisuko igal guziak jan giñizkake. Bakar-bakarrik agindu digu, erdian dagon zuaitzekoak ez jateko. Zuaitz orri, ikutzerik ere ez du nai Jainkoak; ikutu ezkeroz, iltzea ere baliteke.» «Ixillik zaude, erantzun zion sugeak, inolare etzerate ilko-ta; igal ori jan bezin laster, zuen begiak zabaldu, ta Jainko bezela, onaren eta gaitzaren jakindun izango zerate.» Iduritu zitzaion orduan emakumeari, bere begientzat ain eder ta maitagarri agiri zan zuaitzetik jatea zegokiola. T'igala artu ta jan zuen. Gero bere senarrari eman zion, et'onek ere bai, jan zuen.

Bat-batetan zabaldu ziran beren begiak eta billoiz zuedela ezagutu zuten; ta *piko-ostruak* eundurik, estaltzeko soñekoak egin zituzten. Jainkoaren urratz-otsa urreratu zitzaien orduan, eta loretegiko zuaitz artean eskutatu ziran.

«Gizonak bere aurrean bizitza t'eriotza dauzka; aukeratzen duana emango saio. (Ecles. XV. 18).

### 3. Obena zigortaua. Jainko-Berreroslea

1) Adan t'Ebak beren obena aitortzen dute. Jainkoak deitu zion Adani esanaz: «Adan z'nun zaude? T'erantzun zion: «Zure urratz-otsa entsun detanian larru-gorrian nengoela-ta, bildurturik eskutatu naiz.» Esan zion Jainkoak:

«¿Nork esan dizu ordea billoiz zaudela? Eragotsitako zua-tzetik jan dezu zuk noski.» Adanek dio: «Laguntzat eman ziñidan emakumeak, zuaitz ortako igala eskeñi-ta, jan det.» Emakumiarengana biurtu zan orduan Jainkoa ta dio: «Zer dala-ta egin dezu ori?» Ebak erantzuten du: «Sugeak liluratu nau-ta, nik jan.»

2) Jainkoak sugea gaitzelsi ta Berreroslea agintzen du.—Ondorean Jainkoak, epaile jarri-ta, dio *sugeari*: «Au egin dekalako zoritxarreko, izango aiz. *Asarre-gorrotoak ipiñiko dizkiat i ta emakume, ire ondorengo ta bere ondorengoan artean. Berak lertuko dik burua, ta i ibilliko aiz bere orpoaren zelatan.*»

3) Gizon obenduna Jainkoak zigorpelutzen du.—*T'emakumeari* esan zion: «Zeregin t'araso-gaitzat, sortuko dituzu aurrak; senarraren mende ibilliko zera, ta bera izango da zure nagusi.» Adani ere esan zion: «Zeure erruz, neketa-koa gaurtik lurra. Elor-erantzak emango dizkitzu; ta egiña izan ziñan lurrera biurtu arte, bekokiko ezerdiz irabazi biarko dezu jateko ogia; *autz bai-zera t'auts biurtuko zera.*»

4) Jainkoak gizona Paradisutik ateratzen du.—Jaunak abere-larruzko soñekoz Adan eta bere emaztea jantzi-ta Paradisutik bota zituen. Atean, zuaitz-bizierailea zaitzeko, Kerubin bat zuzko ezpatarekin ipiñi zuen.

*Gizon baten bidez obena zartu zan ludian et'obenarekin eriolza; orre-gatik gizon guziak eriotzpean, guziak obendun diralako. (Rom. V, 12).*

#### 4. Lenengo gurasoen Semiak

1) Kain t'Abel.—Adan t'Ebak bi seme izan zituzten: Kain bata, bestia Abel. Abel artzaya zan, Kain berriz nekazari edo lurgiña. Egun batez, biyak Jainkoari eskeñiya egin ziyoten, batak baratzako alorte edo frutubaz, bestiak berriz artaldiyan zeuzkan bildotx ederrenez. Ontzat artu zuben Jaunak Abelen eskeñiya; Kainena *etzitzayon ede-rretsi.*

2) Kaiñek bere anai Abel iltzen du. — Jaunaren autubagatik Kain asarratu zan ziara, ta bere arpegiya bekozpetu zitzayon. Jaunak galdetu ziyon: «Zergatik zaude orren asarre? On egiten badezu, sarituko zaitut, baña gaitza egin ezkeroz, zigorpetu. Obenik ez egitea zedorren nayeon dagokitzu» Orduban Kaiñek esan ziyon Abeli: «Guazen atariz urruti» T'urrutiratu ziranian, Kain, Abelen kaltez, beroni gainka jaurti zitzayon, ta bertan il-da laga zuben.

3) Jainkoak zigorpelzen du Kain, ta beronek ilzaropen guzik gultzen ditu. — Orduban Jaunak galdetu ziyon Kaiñi: «Non da zure anaya? Kaiñek erantzun ziyon: «Eztakik, ni bere zaitzalletzat alnaukazu?» Erantzun ziyon Jaunak: «¿Zer egin dezuz? Lurretik anayaren odol!a bekaizpen ta zigor eske dagokit. Orretxegatik, zere anayaren odola irentzi duen lur ortan bertan zorigaitzoko izango zera. Lurrak eztizkitzu bere slorte onak emango, ta bata-bestera keskatsu t'itsulkari ibilliko zera» Kaiñek orduban Jaunari egin ziyon de-ar: «Nere obena aundiya da, ta barkapenaren diña ino-laz eztna. Zure iku-petik aldenduko naiz, ta lenbizi idoro-tzen nauben arretxek ilko nau.» Jaunak erantzun ziyon ordi: «Etzatzu ori gertatuko» ta Jaunak ezaugarri bat ezarri ziyon, inoxtxore bera il-zera ausarditu etzedin.

Urrutiratu zan Kain, t'Edengo sortaldian itzulkari bizi izan zan. Bere ondorengiak gizakume txarrak izan ziran, ta *gizonen semeak* izendatubak.

4) Set, Abelen ordekoizat. — Adan t'Ebak beste seme bat ere izan zuten, Set, zeritzotena. Onen ondorengiak etziran on ta jainkotiarrek izan, ta Kain-en seme gaiztoaz nasturik, astiro-astiro aben oitura txarretara zaletu ziran.

*Jainkoak biyotza begizatzen du. (Psalm. XVI, 7).*

Jainkoak orduko Erkabai bizi-aro ugariya eman ziyen. Adanek 930 urte bete zitnan, Set-ek 912, Matusalen, Noeren aitona zanak, 963; Henok, Matusalen-en aita, bizi-aro ain ona igaro zuen-da, bizi zalarik, Jaunak bereganatu zuben.

## 5. Ugoldea

1) Jainkoak berriya dakar.—Jainkoak garbi ikusten zuben, gero ta geyago gizaldiyak gaiztotzen ari zirala, t'abek sortu zituakoz bazeukalako damu, aitortu zuben: «Gizadiya lur gañian erraustera noa» Gizon jainkotiar bategen bakarrik zeukan Jainkoaren aurrez doai ona: *Noe* zeritzayon.

Beroni esan ziyon Jaunak: «Zurezko ontzi andi bat egin ezazu: txerostu ta piketu zazu ongi azalez ta barrenez: bere luzakerak 300 ukal-neurri biar ditu: zabalakerak 50, ta goyekerak berriz 30: bialtzera bai noa ugolde izugarri bat, ta lur gañian bizi dan edozein eriyozpetuko det; zurekin ordia adizkide-bide bat egin nai det: zar zaitez ontziyan zure emazte, seme, t'aben emazteekin: artu itzatzu barrenen mota bakoitzeko bi abere, zedorrekin geroraz-ere bizi ditezen, ta janari t'edariz, guziyentzako diñean, gertu zaitez» *Noe*-k Jaunak esan bezela egin zuben.

2) Jainkoak lurrerontz ugoldea bidaltzen du.—Ordu-ban ortziko urategi, ta laño euditsubak idiki ziran, ta erreka t'iturritz bezela jaurti ziran urak 40 egun ta gaben barrunbean. Igo ziran ur ayek mendiyik goyenetako gallurra baño 15 besaki gorago.

Ontziya ur-azalean zebillen. Ludiyan ziran, giza-seme, emakume t'abere guzik ziara galdu ziran, t'etziran iraunpetu *Noe* ta berekin ontziyan zeudenak besterik. 190 egunen astiyan ur ayek ludi guziya estali zuten. Bidaldu zuben Jaunak alako aize epelkari bat, t'orduntxe azi ziran urak jeisten ta gutxitzen. Noeren ontziyak lur ikutu zuben Armeniyako mendi tontor batian. Ontziko leyatillak idiki zituan *Noe*k, ta bertatik itsularazo zuben bele bat, urrutiratu ta geyago biurtu etzana. Gero itsularazo zuben uxobat, ta non oñik jarri etzeukalako, biurtu zitzayon ontzira. Zazpi egun igoro-ta, osteraxo uxuari laja ziyon itsultzen, t'illunabarrez biurtu zitzayon, oliyo-adar berdantxa mokoz zekarkiyolarik. Beste zazpi egun igarota bidaldu zuben

uxoa ibiltal dira, t'etzitzayon etxeratu geyago. Orduban igarri zuben Noek, urak idortu zirala lur gañetan.

3) Jainkoak Noerekin itunbena egiten du.—Jainkoak bere sendi edo *pamili* eta abere guzikin ontzitik irten zedilla Noeri agindu ziyon. Noek aldare bat ipiñi zuben, t'abere garbiyenak aukeratubaz, Jainkoari eskeñi ziyon opariya. Jainkoak ontzat artu ziyon et'esan-ere bai: «Iñoiz ere geyago ezte beste ugolde batek lurrik ondatuko.» Onespendu zituban Noe ta bere semiak, t'esan ziyen: Orra bada: egin det gaur zuekin t'ondorengo guzikin adizkide-batza, nere argi ustaya edo *arkoiris* odeyetan ipiñiyaz; zuekin egin dedan adizkide-bidearen ezangarriya bera izango zatzute.

*Goretsi Jauna, ona dalako: bere errukipena betiraun da.*

(Psalm. CXXXV. 1)

## 6. Noeren ondorengiak

Kam-ek iraintzen du bere aita.—Noerekin ontzitik irten zuten bere semiak, *Sem*, *Kam* ta *Jafet* izendatzen ziran.

Kam, Kanaan-en aita zan: iru senide abetatik datoz lurreko gizaldi guziyak.

Noek masti bat aldatu zuben, nekazariya baizan. Egun batez ardoa edan-da, bere indarrak etzekizkiyelako, uztegabe mozkortu zan, eta Kam, seme gaztienak lurrean etzanda ikusi zuenian, Sem da Japeti, aitaren egokera parregarriya, algaraz t'izekaz aitortu ziyen, bañan abek itzal ta begiramentuz aitari lagundu zioten.

2) Kam-en aitagandiko zorigaizpen ta Sem da Jafet-en onespenua.—Noe seme gaztenaren lotzagabekeria jakin zubenian, esan ziyon: «Zorigaizto Kanaan. Izan bedi anayen mendekoen mendeko» onespendu zituan beste bi anayak esanaz: «Onetsia izan bedi Sem-en Jaun Jainkoa! ;Kanaan mendeko izango zayo! Jainkoak iraun t'ugaritu beza Japet,

ta bizi bedi Sem-en erridiyetan! Kanaan izan betzayo orri-  
re mende-mendeko!

3) Jainkoak Noeren ondorengiak zakabanatzen ditu:—

Abek oso ugaritu ziran. Sortaldetik irten da Senar-ko zela-  
yetan ostalardu ziran. Alkarri zesayen: «Iratsi edo *fundatu*  
dezagun emen erri aundi bat, muturraz ortziraño iritxi di-  
teken dorre aundi bat goratu dezagun. Lur zabalean geok  
banatu bañon lenago orrela betiraungo degu gure izena-ta.

Ondurarte gizaldi guziyak izkera bakarra zeukaten; ba-  
ñan Jaunak dasa: «Nastutzer a nijoa oyen izketa, alkar  
ulertu eztezaten.» Dorrearen bukaera onetxek eragozpen-  
du ziyen. Erriya *Babel* izendatu zan, (esan nai du *naskera*)  
orixe gertatu bai zan antxe.

*Jaunak zapuzten ditu andiustekoak; apalai eman oi diye bere doaya.*

(I. Pet. V, 5).

---

Ugolde ondorian Noek, oraindik ere, bete zituan 350  
urte, ta 950-koa zalarik, iltzan.

Gizadiya Jainko egitzubaz astuta, jainkorde izuneta-  
rontz zaletu zan; bañan Jaunak Abraham t'ondorengo Is-  
raeldarren erriya esleitu zuan, gerora agertu biar zuben  
*Jainko-Eroslearen* itxaropen ta sinismenak gordē zitzan.





## II. Aita-nagusien aldia.

### 7. Jainko t'Abram'en arteko itunbena

1) Abram-ek Jainkoaren esana egiten du.—Tare k, Sem-en ondorengosk, iru aar izan zituen: Abram, Nakor t'Aran. Tare, bere seme Abram, billoba Lot, eta Sarai, Abram-en emastearekin, Ur ze-itzan Kaldeatarren uritik atera-ta, Haran-en, Mezopotami-errian ostalardu zan.

Egun baten Jainkosk dio Abram-i: «Zure t'aitaren etxea utzirik, nik erakutziko dizudan tokira atoz.»

Abram bere emaste Sarai ta Lot illobarekin, itxetik irten-da, Kanaan alderaño juan zan. Antxe agertu zitzaion Jainkoa esanaz. «*Erri au zure ondorengoai emango diet.*»

2) Melkisedek-ek Abram-i onespena ematen dio.—Abram eta Lot-en artzaiak beren larra-mendiak zirala ta etzirala alkar ezin ikusirik zebiltzen, et'orregatik osaba-illobak beren adizkidetasuna ez galtzarren, bata bestiarendandik aldebanatzeko asmoa artu zuten. Lot-ek, Jordan-aldeko ibar-zabal-zoragarria beretzet aukeratu-ta, Sodomian etxe-aldea ipiñi zuan. Abram berriz, Kanaan-errian, Hebron inguruko, Manbre-ibarrean gelditu zan.

Ta bi errege arrotz jaiki ziran Sodoma ta Gomorrako erregien kaltez. Ta uri oietan garailari sartu-ta, katibutalde aundia arrapatu zuten, et'askoren artean Lot ere

bai. Ondapen onen berri jakin orduko, atera zan Abram 313 morroi berekin zituela, ta gabaz et'iñork uztekabe etsaien gain amildu, gudekiñaren jabe egin eta Lot-illoba ta gañerako katibu osteakiñ etxeratu zan.

*Salengo errege Melkisedek, atera zilzaion bidera, ogiarδοaren oparia eskeintzan zualarik, guziz Altsuaren apaiz zan-la.* Ta bere onespina Abram-i eman zion ezanaz: «Jainko guziz Altsu zeru-lurren Egillearentzat, onetsia izan bedi Abram.» Abram-ek ordaiñez zekarzkien ogasun guzien amarrena eman zion.

*Jainkoak Abram-ekin itunbena egiten du.*—Garai ontan Abram-ek aurrik etzuen. Et'arratz batən Jainkoak ortzgarbia erakutsirik, esan zion: «Itzuli gorunz zure begiak et' albadezu izar oiek zenbaitu: Olaxe, ugari, zure ondorengok ere, izango dira.» *Abram-ek Jainkoari sinistu zion eta siniste au bera donetutzeko izan zan.*

Berriro Jauna Abram-i agertu zitzaion ziolarik: «*Erri askoren aita egiten zaitudalako, aurrerontzean zure izena ezda izango Abram, Abraham baño. Zure emaste Sarak, aur bat izango du, t'aur orri Isaak izenez ipiñiko diozu. Berarekin itunben-iraunkorra egingo det bere ondorengoen aldez.*»

*Sinimenera jaiotzen diranak oiek dira Abraham-en ume.* (Gal. III, 7)

## 8. Abraham aztertua

*1) Jainkoak Abraham-en zintzotasuna astertzen du.*—Jainkoak bete zuan Abraham-i agindu ziona. Sarak zartzaroan seme bat izan zuen, et'Abraham-ek Isaak-izena ipiñi zion.

Isaak mutil gasten zala, Jainkoak Abraham-en zintzotasuna ikusi nai izan zuen et'esan zion: «Orrenbeste maite dezun Isaak seme bakar ori, nik erakutsiko dizudan mendi gañean oparitzat eskeñi biar didazu.»



2) Abrahamek Jainkoaren naia egiten du.—Egun abararen zai egon gabe jaiki zan Abraham et'astoa tresnatu t'opari-egurrak txikitu, t'Isaak eta bi morroi berarekin zituela abitu zan. Irugarren egunean urrutitik ikusi zuan oparia egin biar zan mendia, t'orduan esan zion morroia: «Semea ta ni Jainkoa agurtzeko goratxuago guaz; zuek, astoarekin ementxe egon» Astoari egurra kendu ta Isaaki sorbaldan ipiñi zion et'illetia t'aiztoa berak eskuan zitu-ala, gañeronz bazijoazen. Bidean dio Isaakek: «¡Ene aita!» Abrahamek erantzun zion: «¿Zer nai dek, maite?» Isaak-ek esaten dio: «Ona emen sua t'egurra badakuskit; baño ¿nun da oparitu biardan bildotxa?» Abraham-ek erantzun zion: «Ene seme, Jainkoak eratuko ziguk.»

3) Jainkoak Isaak iltzia eragosten du.—Jainkoak esan- dako mendi gañera eldu ziranian Abraham-ek opari-arria egurrez ornitu, t'Isaak lotu ta gañian ipiñi zuen. Et'aiztoa arturik, semea zuaritzeko asmoan besoa jaso zuenian, Jau- naren aingeruak oju egin zion zerutik: «¡Abraham! ¡Abra- ham! Ez zeure semerik zauritu; orain ezagutu det Jainko- ari bildur zatzaiola, bere esana egiteagatik seme bakarrari ere ez bai-diozu barkatu.» Abraham-ek begiak jaso ta sasi artean adarrak itsatsita, ari bat ikusi zuen ta bera arrapa- tu ta semearen orde z oparitzat Jainkoari eskiñi-zion.

4) Jainkoak, Abraham-i egin zion onespen-agindua, berritzen du. Bigarren aldiz, deitu zion Aingeruak Abra- hami, esanaz: «Egiz t'osoro egiz dizut, dio Jainkoak, nere naia betetzearren, zure seme-bakarrari barkatu ezdizula- ko, izango zera onetsia, ta zeruan izar t'itxasoan ondar aña ondorengo, izango dituzu ta zure ondorengo oietako balen bidez onetsiak izango dira ludiko erri guziak.

*Bere semea edo bere alaba ni baño geiago maitatzen duana, nere- tzat gauza ez da. (Math. X, 37).*

Sara, iltzan Hebron-en, 127 urte beteta. Abrahamek, biziskuko leizea zegoen bastertxo bat erosi t'antxe obiratu zuen bere emaste zana.

## 9. Esau ta Jakob

1) Esauk senide-nagusitza saltzen du.—Isaak, Rebeka Nakor-en illoba zanakia (Nakor Abrahamen anaya) ezkondu zan. Ezkondutako ogei-garren urte buruban Jaunak bi seme biski eman zizkiyon: bata illetsuba, t'*Esau* zeritzayon: bestiak *Jakob* artu zuan izentzat. Bi mutiko ayek gizaseme egin ziran. Esau eiztari azkarra zan: Jakob apaltsu ta bera-txago, etxe-barrunbeko bizikerak zaletzen zuan. Isaak-ek Esau geyago maitatzen zuan, eizatik zekarkiyona gogoz jaten zuelako; Rebekak berriz Jakob askoz geyago.

Jakobek illarasta edo *lenteja* erratillu bat gertu edo *preparatu* zuan egun batez, etxeratu zan Esau eizean ler egin-da. Jakob-i esan ziyon: «Ekatzak zuku gorri ortatik zerbaito, ler eginda netorrek-eta» Jakobek erantzun ziyon: «Ekatzak edorrek aurretik dagokidan senide-nagusitza» Esau-k erantzun ziyon; «Goseak iya auldu natxiok: zertarako diat nagusitza?» Jakobek esan ziyon: «zin egintzak, nagusitza emango didakala.» Esauk zin egin zuan, ta jan d'edan ondorian, irten zan etxetik, batere arretaratu gabe emandako itzaz.

2) Isaak bere senide-nagusi Esau, onespentzera gertutzen da.—Isaak zarra zan terdi itxua, t'ala esan ziyon Esau-ri: «Urte asko zeuzkat. seme, t'etzekiat noiz il biar dedan. Artu zak ire iskillo edo *arma*: irten adi eizera, t'ekarri zadak eizakiriyik onena, il bañon lenago onespendu adan.»

Irten bezelaxe Esau, ama Rebekak zesayon Jakobi «Ene seme, egintzak nik esango diadana: eramán akiok aitari nik gertuko dedan jaki ona, il bañon lenago onespena artu dezakan.» Irten zuan Jakobek bi bildotxen billa, t'oyetaz Rebekak gertu ziyon senarrari janari ona. Ezarri

ziyon Jakobi amak Esauren jantziya, estali zizkiyon esku ta lepo aldiak bildotxen ille-azalaz, t'aitarengana biali zuen.

3) Isaak-ek Jakob onetsitzen du Esauren ordez.—

Isaak-ek galdetu zuan: «zein aizi, nere seme?» Jakobek erantzun zion: «Esau naiz, etxeko seme-nagusiya. Jan beza emen dakarkiyodana, ta ondoren onespendu benau.» Aitak urreratu erazo zuan; ikutu ere bai esku ta lepo-aldean t'ala zesan: «Egiyaz Jakobena itza deritzat, bañan lepo t'eskubak Esaurenak dira. Jainkoak eman deikala garitik eta matsetik uguritasuna, zeruko intza ta lurreko narotasunakin batez: erridiyak iri auspetuko zaizkik, t'edorri izango aiz anayen nagusi: zorigaizto, i zorigaizpetzen auena ta zoriontsu, i zorionpetzen auena.» Orrela gelditu zan Jakob aitaren senideordeko.

4) Esau negarpetzen da bere adur charrez. —

Esau eizatik etorri bezin laster, agertu zitzayon aitari onepen eske. Orduan Isaak zarrak nabaitu zuan egindakoen okerra, t'Esauri esan zion: «Gezurretan etorri zadak ire anaya, ta nik nere onespena berari eman ziot, t'onetxek orrela iraun biarko dik onezkeroz.» Ernegatu zan orduntxe Esau anayaren kaltez, batezere, bigarren aldiz, ordekotu zuelako. Isaak-ek, erruki limurraz, esan zion: «Edorrek ere izango dek lurreko narotasun ta zeruko intzetikan zerbait. Ona iri dagokidan onespena: Espata artian biziko aiz, t'anayaren mende bizi arren, edorrek nai izan ezkeroz, egunen baten irten iteke orren mendepetik.»

*Abo gezurdunak Jainkoaren zaputz. (Prov. XII, 22).*

## 10. Jakob Mesotamin. Bere biurkundera

1) Jakobek ikustapen arrigarri bat nabaitzen du.—

Esauk, bere amorruez, zira egin-da zeukan, anaya ilko zuata. Jakin zuan bezin laster, Jakob itsulitu zan Mesopotamirontz, Laban bere osabaren etxera. Bideko arri kankar bat

buruko zuelarik lotan zegon arratzalde batez, ametsetan ikusi zuan malladi edo *eskallera* bat, lurrian asita, zeruban bertan bukatzen zana: bertatik zebiltzan Jainkoaren aingerubak goruntz eta beruntz: oso gallurrean Jauna agertu zan, ta Jakobi esan zion: «Ni naiz Jauna, Abrahamen t'Isaak-en Jainkoa. Etzanda, bizkar azpiz daukazun lur ori, zuri t'ondorenguai emango ditzutet. Ondorengu oyek ugariyak izango zaizkitzu ondarra t'autza beselaxe *ta gizaldi orren oin batez onespenduko ditul erridi guziyak.*»

2) Jakoben morroitza Labanen etxian.—Jakobek jarraitu zion bideari, ta Haran zeritzayon errira irichi zan, bere osaba Labanen etxera: antxen igaro zituan 20 urte morroitza. Orrelako lanbidetzaz ordaintzeagatik osabak bere alaba-nagusi Lia emaztetzat eman zion: gerogo berriak Rakel, alabik gaztena. Jaunak Jakob onespendu zuan. Haran-go erriyan egon zan bitartian amaika seme izan zituan: *Ruben, Simeon, Lebi, Juda, Dan, Neptali, Gad, Aser, Isakar, Zabulon da Jose.*

Ondasun aundiyak bereganatu zituan: bazituan artaldi ugariyak, arditan, gamelutan t'astotan; baita-re morroi ta neskame asko.

3) Jakob Mesopotamitik etxerontz biurtzen da.—Ogei garren urte buruban Jainkoak Jakobi esan zion: «Biurtu zaite aitaren etxerontz: ni zurekin izango natzu.» Jakob bidean jarri zan bere sendi t'abelgorriyak. Jakob-o iturri-ibaira iritxi zanian, uraren beste ertzera igaroazo zuen berari jarraitzen zion giza-ostea, ta bera atze-xamar gelditu zan. Aingeru bat, gizaseme itxuran, bidia eragozpetu nai baliyo bezelako keñuz azaldu zitzayon, ta berarekin jatzarratu zan goizarteraño. Aingerubak igarri zuenian garaitu ezin zetzala, iztarreko zaña ikutu-ta kemen gabe laja zion. Orduban ala zesan aingerubak: «Aurrerontz etzera *Jakob* izendatuko, bañan bai *Israel*; *Jainkoaren indarra* esan nai du-ta, zedorri bada Jainkoarekin jatzarratu zera: zenbatez geyago jatzarratu ta garaituko estituzu gizonak?» Gero onespendu zuan Jakob bañan onek, erre-

nak bezela, oinkada eman oi zuan, iztarreko zafia idortu bai-zitzayon.

4) Esau Jakobekin adizkidatzen da.—Begiya ikuspe-  
nez atzarritu zituania Jakobek, Esau ikusi zuan berega-  
nontz zetorkiyola gizoste aundi batekin. Jakob bidera irten  
zitzayon, ta belaukatu zan lurrean zazpi aldiz. Alderatu  
zan Esau: besarkatu zuan maitaro ta negar zegiyen. Anaya-  
rekin adizkidetu-ta Esau bere errirontz bidetu zan, Jakob  
*Sikem* alderontz, ta gerora *Hebron-a*, Isaak aita zarra ikusi  
zezan.

Bide bitarte ontan, Belengo onduan, emazte Rakel il zi-  
tzayon seme bat egitetik. Auxe Jakoberen amabigarren se-  
mea zan, ta *Benjamin* jarri zitzayon izentzat. Jakobek eor-  
tzi edo lurpetu zuan Rakelen illotza bidearen ertzian, ta  
bertan goratu zuan obitegi eder bat. Esaurekin batez aitari  
azken-asnasetan lagundu ziyon. Isaak aita 180 urte zituela-  
rik il zan.

*Guziya Jainkoaren maitaleen alde zago.* (Rom. VIII, 28).

## II. Jose bere anayak saltzen dute

1) Jose bere anayetara bialtzen du aitak.—Jakobek  
seme guziyen artian Jose maitatzen zuan geyen, t'orre-  
txegatik noski txaramel edo *túnica* margoztuba egin ziyon.

Anayak orretaz bekaizpetu-ta zeuden. Egun batez abek  
gaizbide bat egin zuten, ta Josek aitari aitortu ziyon. Or-  
duezkeroztik amorrupuan anaya zeukaten, t'etziyoten mai-  
tasanaren ezaugarri bat ere ematen. Bañan oraindik ere,  
anayaren kaltez, geyago amorrotu ziran, onek adierazo  
zizkiyenian izan zituan bi amets. Ala zesayen: «Lastazao  
batzuek biltzen ari gindukan anai guziyok zelai eder ba-  
ian; nere lastazoa zutik zirauelarik, zeonak, bitarte ontan,  
alderatzen itukan nereagana, ta berau erdiyan arturik,  
apalki auspeztu». Oraindik ere zesan: «Gañera ametsetan  
ikusi zetikat eguzkiya, illargiya, t'amaika izar nere aurrean

auspetzen ziranak» «Ta zer esan nai dik amest orrek, erantzun ziyon aitak, alegiya ni, ire ama t'anayak auspetu biar-ko degula ire aurrian»? Orretaz anayak gero ta geyago bekaizpetu ta amorropetu zuten.

2) Jose anayak saltzen dute.—Joseren anayak beren artaldiyakin Dotain-go alderdik askotxo urrutiratu ziran egun batez, aitak Jose biali ziyen zerbait berri jakiteagatik.

Begiztatu zutenian, alkar zesayeten: «Emendek amesgillea: il dezagun, ta gero errez esango diagu, pistitzarren batek jan duela. Orrela nabaituko dik, zertarako zetikan bere ametsak». Anai gaizto ayen eskupetik askatzeagatik, Ruben anai zarrenak erantzun ziyen: Ez, ez, ez dezagun il: bota dezagun arako pozadera legorrera.»

Joseri, iritxi zanian, atera ziyoten txaramel margoztu ura, ta pozadera idor artara bota zuten esan bezela: inguruan isirita, beren jan otordua egin zuten. Andik laster merkatari Ismael-tarrak azaldu ziran bere gamelu zamatu-bakin, Egipto alderontz noski zijoazenak. Judasi beriala otu edo *ocurritu* zitzayon. «Gure anai amesgille ori gizon aberi saldu dezayegun: orrela beintzat eztizkiagu gure eskubak eriyotzaz loituko.» Anayak bayezkua eman ziyoten: atera zuten pozaderatik Jose, ta ismael-tarra saldu ziyeten, ogei zillarresko diru truk.

3) Jakob bere semearen galeraz negartzen da.—Joseren txaramela bildotx baten odolaz igortsi zuten, t'aitari biali ziyoten, esanaz: «Txaramel polit ori arkitu degu; begira beza bedorren semearena dan edo ez.» Aitak artzakotzat artu zuen, t'esan ere bai: «Au da bai, auxe da nere semearen txamarela. ¡Pistitzarren batek ildu!» Puzkatu zituan orduan soñian zeuzkan jantziyak: beste atsegabezko t'illunak jantzi, ta farteka gabe negar egin zuen ilberriyagatik.

*Zoriontzubak jatzar ta minpean dabilzatenak zuzentasunaren aldez. (S. Mat. V. 10).*

## 12. Jose Ejipton

1) Josek estluasun-aldian Jainkoari zintzo jarraitzen dio.—Ismaeldarrak Ejiptora Jose eramán ta Putifar guda-muullen nagusiari saldu-zioten; et'onek etxeko sartu-eman eta gora-berak bere ardurapean ipiñi zituen.

¡Mutill zintso ta langilleagorik etzan! Bere arazoak betetzen zuzenagorik ere ez! Bein ordea etxekoandreak gauz geizto bat egiteko bidean ipiñi zuen; et'orduan Josek esan zion: «¿Nola naidezu ba gaiztakeri ori egin, ta ni nere Jainkoarentzat obendun izatea?» Jainkoazu ta nere beste agintari guzien gain dago, ta bere aurka ezin ezer!xo ere egin.

1) Jainkoak Joseri naipabe-aldian onespina ematen dio.—Orduan emakumeak, gezurrezko salaketa itxusia Jose-ren kaltez senarrari egin, et'onek guzia sinisturik espetxe-an sartu-erazi zuen.

Baño Jainkoa bere alde zualako, espetxe-nagusiak begi-onez begiratu zion, ta beste espetx-kidien zaintzale ipiñi zuen.

Garai ontan Ejiptoko Paraonek bere jaugeriko edakin eta okin gauzak zuzentzen zituzten morroien nagusi biak ere, utzegiten batzuegatik espetxian sartu zituen. Goiz baten ikusirik Josek gizon oiek oso muxin et'illun zaudela, galdetu zion: «¿Zer dala-ta zaudete orren itun? «Eta erantzun zioten: «Ames batzuk egin ditugu t'adierazlerik emen ez dago.» Josek esan zion: «Amesak adiraztea Jainko-gauza da: Ia amesok neri esan?!»

3) Josek amesak adirazten ditu.—Edakin-nagusiak esan zuen: «Ara, nik ames egin det, matsabea ikusten nuala ta matsabeari iru adar bere mats-mordoakin irtetzen zitzaizkala, ta eldutako matzmordosk nik artu, edontzian lertu ta bere zumoa, Paraoni eskeintzen niola.» Josek erantzun zion: «Iru mats-adar oiek iru egun ikurtzen dute; emendik iru egunera, Paraonek, lengo zure egitekotan ipiñiko zaitu. Lengo oñean jartzen zeranean ba, nere alde

Paraoni eskatu.» Okin-nagusiak berriz esan zuen: »Nik us-  
te nuen buru gañian, ogi-zuriz betetako, iru saski nera-  
mazkidala. Goienero saskian, errege elikatzeko era guzie-  
tako gozokiak zeudela, baño txoriak etorri-ta jaten zituz-  
tela.» Josek erantzun zion: «Iru saskik iru egun ikurtzen  
dute; iru egun oien buruan Paraonek lepoa moztuko dizu  
ta zure aragia, egaztiak jango dute.»

4) Jose ames adierazle ona izan zan.—Iru egun igaro-  
ta, Paraonek, edakin-nagusia lengo egitekoan ipiñi zuen;  
okin nagusia berriz, Josek esanda bezelaxe, urkamendira  
eraman-erazi zuen. Edakin-nagusia ordea, bere askatasun-  
zorionsuan etsan Jose-z oroitu.

*Gizon zintsoa bastertuta ez da inoiz ere ikusi.*—(Psalm. XXXVI, 25:)

### 13. Jose goretsia

1) Amesak keskaz beletzen dute Paraon.—Andik bi ur-  
tera, Paraonek berak ere ames egin zuen. Iduritzen zit-  
zaion, Nilo-ibaian zegoela t'ibaitik zazpi bei gizen-gizen ir-  
ten, et'antxe larrean zebiltzala; gero beste zazpi bei argal  
eta ziztrin jaiki, ta lenbiziko zazpi gizenak irintsi zituztela.  
Esnatu zan Paraon, baño berriz ere loak artu, t'ames egin  
zuen. Lasto batetik zazpi galburu mardul zetoze; gero  
beste zazpi zimur-soil erne zirala, t'auek lenbiziko galburu  
eder-beteak ondatu zituztela. Izaturik Paraon esnatu zan.  
Ejiptoko jakintzuen artean ordea ames oiek adierazoko  
zizkanik etsan.

2) Josek Paraonen amesak adierazten ditu.—Orduan,  
edakin-nagusiya Jose-z oroitu zan eta bere aldez Paraoni  
itzegin zion et'onek bereala Jose aurrera ekarri-erazi ta  
bere amesak esan zizkan. Josek erantzun zion «Jainko-  
ak egitera dijoana, aurreztik agertzen dizu. Zazpi bei  
gizenak eta galburu beteak, ugaritasunezko zazpi urte;  
ta zazpi bei argal ta zazpi galburu zimurrak, garirik gabe-



ko beste zazpi adirazten dituzte. Orain bada zazpi urtean ugari izango da gauza Ejipton; ondorengo zazpi urtetan ordea lengo ugaritasuna aztu-eraziko duan gosete izugarriak aginduko du. Orregatik bada, Paraonek, gizon jakintsu bat aukeratu beza, erridian, gero banatu bear dan gariz, ganbarak betetzeko.

3) Paraonek bere urreneko agintari ipintzen du Jose.—Eder-etsi zuan Paraonek oar au t'esan zion Joseri: «Zu baño gizon egoki ta jakintsuagorik izango al det? Jarrizaitzea Ejipto guziaren aurrean, eta zure españak dioten itza nere erriak beteko du; zu izango baizera orain nere urren.» Ta berealaxe atera zuan Paraonek bere silludun-eraztuna t'ipiñi zion Joseri, t'oiial leunez egindako soñekoz apainduta, urrezko katez lepoa inguratuta, bere gurdi-ederrian garailari eraman erazi zuan, aurretik oiuka ziotelarik: «Be-launikatu Josereren aurrean». Beste izen berri bat ere, Ejiptotarren elean «*Ludiko Azkatzalle*» esan naiduana, ipiñi zion. Josek orduan 30 urte zituen.

4) Josek, garia gordetzen du.—Zazpi urte aberats-ugariak eldu ziran, eta Josek, biar-biarreko garia eman, eta gañerako guzia ganbara t'alategietan bildu, ta gorde zuen. Gero, zazpi urteko urritasunak ere ekin zion, et'erría janik gabe arkitu zanian, Paraoni eske jarri zitzaion. Eta Paraonek guziai erantzuten zien. «Jose-gana zoazte, ta berak esaten dizutena egin.» Josek orduan ganbarak zabaldu ta ejiptorrai garia zaltzen zien; izugarria baizan gosete ura; auzo ta atzerrietatik ere Ejiptora garibilla zijoazten

*Jakintasunaren asiera Jainko bildurra. (Psalm. CX, 10).*

## 14. Josereren anayak Ejipton

1) Jakobek Ejiptorontz bialtzen ditu bere semiak.—Entzun-da zeukan Jakobek, gariya salgai zegoela Ejipton, ta bere semeai esan zien: «Jetxi zaitzte Ejiptorontz, t'ekarri zadazute gariya, gosiak il ez gaitzan».

Orduban bere amar seme Ejiptorontz bideratu ziran: Benjamin txikinari etziyon laja anayakin juaten; zorigaitzen-bat gertatuko ote zitzayongoz, zalantzetan baizegon.

2) Josek bere anayak larripean jartzen ditu.—Josek, ikusi orduko, ezagutu zituan bere anayak; bañan abek etzuten berau ezagutu. Ezaguna ezpalitz bezela azaldu zitza-yen, ta gogor t'asarre itz egin ziyen: «Zuek ispien batzuek zerate». Erantzun ziyoten. «Ez jauna, ez. Gu gari billa gatzoz onuntz. Amabi anai-senide gera, Kanaango gizon bakarraren semeak: txikina aitaren onduan dago, ta beste bat... galdu zitzagun.» Josek, sinistu etziyengo itxuraz jarri-ta, bere anayak zarrallapean jartzeko aginduba eman zuen. Irugarren egunian ekarri-arazo zituan bere aurrera, t'esan ziyen: «Pakesko gizonak bazerate, geldi bedi emen zuetako bat egi-orde bezela: bestiak zoazte etxera, bañan ekarri biar didazute anai txikina: orrela zeon itzaz zigorpetu nintekte». Aukeratu zuan Simon egi-ordekotzat ta bestien aurrarian katez lotu zuan. Bakoitzaren zorroak gariz bete-arazo zituan, ta bakoitzak zekarren diruba zorroetan bertan eskutatu-arazo.

3) Bederatzi anai etxeratzen dira.—Gari-zorroak ongi beteta ezarri zizkiyeten asto zamariyai, ta bidian jarri ziran. Aitarenganatu ziranian, zer gertatu zitzayen guziya, aitortu ziyoten. Zorroak idiki zituztenian, txutinduta gelditu ziran eramán zuten diruba bertan idoro zutelako. Jakobek orduan esan ziyen. «Zeon gaiztakeriz ayenatu dizkidazute nere semiak: Jose galdu, Simeon espetxean jarri, t'oraindik ere Benjamin eramán nañ didazute? Eztek, zeokin, ez orixe, nere seme Benjamin bidian jarriko. Edozer zorigaitz gertatuko balitzayo, atsegabeak aguro eramango likek lurpera aita zarraren korputz aztuna.»

*Gaizkilliak eztute pakerik, Jaunak ala diyo. (Isai. XLVIII, 22)*

## 15. Bigarren bidagiroa. Anayak Jose ezagutzen dute

1) Jakobek ustean diyo Benjamin-i etxetik irteten.—Gariya bukatu zanian, Jakobek semiai esan zioen: «Biurtu zaitzete Ejiptora, t'erosi zazute berriz ere gariya». Bañan etzuten Benjamin gabe irten nai. Orduban Jakobek esan zioen: «Biarra baderitzazute, eraman, eraman ezazute Benjamin. Jainkoak nai dezala zeokin etxeratzea, ta espetxian dagon anayarekin batez!»

2) Josek mailaro abegitzen ditu bere anayak.—Josek ikusi zuanian, anayak bazetozela Benjamin ekin batez, agindu zuan, zar zitezela bere jauregiyan, baskalaldi on bat gertu, ta Simon espetxetik atera. Anayak zeuden gelanagusiyan sartu zanian, abek esku-luzatu zizkiyoten beren eskeñiyak, ta guzik, bere surrian, lurrerontz auspetu ziran. Josek agur egin zioen, ta galdetu: «Oraindik ere bizi altzazute aita zarra?». Erantzun ziyoten: «Zure mendeko dan gure aita oraindik bizi da, t'onik dago». Begiz jo zuan Benjamin, ta galdetu, zioen: «Au alda zeon anai txikina? Jainkoak onespendu azala, ene seme!». Ta gelatik eskutatu zan, begiyetik zerizkiyon malko lodiyak gorde zituan.

Mayian isiritzerakuan, bakoitzari bere alkiya jarri zioen zarrenagandik lerroz, t'orrelako lerrobidez arrituta zeuden anai ayek alkarri begira. Baskal-ostian, guzik etxeratzeke gertu ziran.

3) Josek oraindik ere larripetzen ditu bere anayak.—Josek agindu-ta seuka Benjaminen zorroan zillarrezko edanontzi bat eskutatzeke.

Urrengo egunian, anayak etxerontz abiyatu ziranian, Joseren morroi-nagusiya arrapatu zituan bidian, t'eskatu zioen bere jaunaren edanontziya. Eratzun ziyoten arritubaz: «Il bedi ementxe bere zorroan edanontziya daukan orixe: bestiak zure menpeko izango gara.» Berialaxe lurre-ra bota zituzten beren zorroak, t'idiki berriz aguruago. Morroi-nagusiya miatu zituan, t'edanontziya Benjaminen zorroan idoro zuan.

Orduan, erneguz, jantziyak urratu zituzten; zamatu ostera beren astuak, ta Joserren errirontz abiyatu ziran, ta gero bere aurrian auspetu. Onek esan ziyen: «Bañan zer egin dezute?» Judasek zesayón: «Zer erantzun genezake gure alde? Jainkoak argitaratu du gure erruba: gu gera mendekoak». Josek erantzun ziyen: «Edanontziya ostu duen ori bakarria izango zait mendeko; bestiak zoazte etxera». Judasek orduan aitortu zuan: «Ni, neroni nere aitaren aurrian atera natzayo seme txikinaren bermegari edo *fia-dore*: ni gelditzen naiz mendeko; t'anai txikina bijoa beste anayekin etxera».

4) Jose anaitzat aitortzen da.—Jose ezin-da geyaguan zegon alako gertakariz; aterazo zituan egiptotarrak gelatik, ta bere anayekin bakarrik zegoalarik, esan ziyen negarrez mara-mara: «Ni naiz Jose! Bizi alda oraindik nere aita?» Etzuten erantzupenik eman anai ayek, alako estu larritsu t'antzikatubak bai zeuden. Orduban Josek maitaro itz egin ziyen. «Ni naiz Jose, zuek saldu ninduzuten anaya; bañan ez bildurtu: enazute zuek ekarriarazo onuntz, Jainkoak bai ordia. Zoazte lasterka aitarengana, t'ekarri zadazute. Nik zeon jan edanen arreta eukiko det; beste bost urteko gose-tea bai-dator-ta». Gero lepo-samarretik eldu ziyon Benjamini, ta besarkatu ta lastandu zuan negarrez; Benjaminek ere negarra zegiyen. Anai guzik lastandu zituan, ta orduntxe etorri zitzayen izketarako kemena.

5) Josek aita ekarri arazten du.—Paraonen aginduz, Josek esan ziyen anayai, aita Ejiptora ekartzeko, ta gurdi, janari ta jantziyak eman-da agur egin ziyen.

*Zure anayak gaitz bagikitzu, barka zayozu.* (Luc. XVII. 3).

## 16. Jakob Ejipton

1) Jakob Ejiptorunz abiatzen da.—Joserren anaiak aitarengana juan-da ikusi orduko esan zioten: «Zure seme Jose bizi da, ta Ejipto guzian agitzen du.» Jakob lo-zorro

astunetik esnatuta bezela, uzkur-uzkur, entzuten zuena ezin sinisturik zegoen; baño Josek bialtzen zizkan gurdiak eta... aurrean ikusi zituenian, sifetsi ta 70 laguneko etxai-diakin Ejiptorunz abitu zan.

Bersabe-n Jainkoa azaldu-t'esan zion: «Ni ere zurekin Ejiptoratuko naiz; zure ondorea, erri-aundi izateraño elduko da, ta bere garaian andik atera ta berriz onera ekarriko det.»

2) Jakob Ejipton sartzen da.—Jose bere aitari bidera irten zitzaion. Ikusi orduko tepotik eldu ta negarra zerio-la laztandu zuen. Gero, aita zarra Paraoni aurkestu zion. Jakobek zorionak opatuaz agurtu zuen Paraon, et'onek ordaiñez, agindu zion Joseri, Gesen-alderdiko txokorik gozotena bere aita t'anaiari emateko.

3) Jakob, bere semeak azkenengo aldiz onespendu ta gero iltzen da.—Jakob beste 17 urte bizi zan Ejipton. Josek aitaren erioiz-ordua urreratu zala jakin zuenian, Manases eta Eprain, bere bi semeak artuta ondora juan zitzayon. Jakobek, mutil biai laztana t'onospena eman zien eta Joseri esan zion. «Ene seme, iltzera nuala igertzen zoat; baño Jainkoa zuekin izango dek eta asaben lurrera berak eramango zaituzte.»

Gero beste seme guziak ere bere ondora ekarri erazi zituen eta bakoitzari zegokion onспен berezia emanaz agur egin zien. Judari esan zion: «Juda, anaiak txalotuko aute; ire aitaren semiak, auzpeztuta aurrian ikusiko dituk. *Eta erriak opatulzen duten ETORRI BEAR DUAN URA, etorri arte, Judaren oñekoak izango dik agintea.*» Au esan-da ilzan.

4) Josek bere aita obiratzen du ta bera ere iltzen da.—Josek bere aitaren gorpua, usaingarriz igortzi ta ustelezkor ipiñi erazi zuen, eta gero illeta edo progu egunak igarotakoan Kanaan era eraman, et'antxe Ebrongo leizulo-bikotian, obiratu zuten.

Aitaren eriotz ondorean, Josek bere anaiari esan zien: «Ez gero nere bildurrik izan. Lengo senide arteko ez-bear

ta asarre guziak geure onerako Jainkoak zuzendu bai dizkit.» Tiltzeko zegoala esan zien: «Jainkoak gure asabai, ziñez eskeñitako lurrera aterako zaituzte. Orduan, nere ezurrak emen utzi gabe, zeokin eramán.» Eta 110 urte zituela ill zan; eta bere gorpua kiaztatu ta ustelezkorturik ilkutxan ipiñi zuten.

*Jaunaren aurrean bere doneen eriotza sarigarria da.*

(Salm. CXV, 15).

## 17. Job donea

1) Lurreko ogasunen ugaritasuna Jainkoak Job-i ematen dio.—Arabia-ko Hus-alderdian, Job zeritzan gizon zintzo-zuzen bat, Jainkoari bildur ta gaiztakeriari gorroto ziona bizi zan. Zazpi seme t'iru alaba zituan; et'ikaragarriko ardi, ganbelu, idi t'asto-taldeak; morroiak ere, ugari zeuzkan. Ta sortaldetarrak oso begirakun aundia azaltzen zioten.

2) Job-en naigabe-aldiko eraopena.—Jainkoak bere zintzotasuna aztertu nairik, baimendu zuan Satan, berari gogor egiteko. Bein batean morroi bat juan zitzaion esanaz: «Idiak goldean eta astoak larrean zebiltzela, *Sabeotarrak* etorri ta, guzia arrapatu dute. Ta neri, zugana etorri naizen oni ez, beste morroi guziaz, espataz lepua mostu diote.» Oraindik esateko guziak etzitian amaitu morroi onek t'an dator beste bat ziolarik: «*Kaldeo-tarrak* zure so-loan sartu, morroiak il, eta ganbelu guziak eramán dituzte; nik iges egitea iritsi det, zuri au gaztigutzeko.» Au esaten ari zala, irugarren morroia agertu zan eta esan zion: «Zure seme-alabak, seme zarrenaren etxean bazkaltzen zeuden; eta bat-batetan, lekaro aldean sortutako ekaitz-aize gogorrak etxearen lau ertzak astindu, etxea bota ta, zure seme-alabak azpian lertu ditu. Nik bakarrik iges egin det.»

Orduan Job jaiki zan, soñekoak urratu zituen, illea moztu zuen eta lurrean auzpeztuta Jainkoa agurtu zuen

esanaz: «*Jaunak eman zidan, Jaunak kendu dit. Berak nai zuen eran guzia egin du. Jaunaren izena onetsia izan bedi.*»

Gertaldi ontan, etzuan Job-ek obenik egin ezta Jainkoaren aurka itzik esan ere.

3) Gaitz izugarrizkoakin ere Jobek zintzo irauten du.— Orduan Satan-ek ezarri zion Job-i oñetik bururaño zauritzen zuan legendar zornetsua. Ta zimaurretegi baten etzan eta tella latz batez, kentzen zituan zaurietatik zerizkan sikiñak. Bere emazteak esaten zion: «¿Oraindik ere lengo zeure txorakerietan al zaude?» Job-ek erantzuten du: «Burugabeko emakume txepelak ere, ez luke orren ergelki itzegin-go. Jainkoaren eskutik onak artzen baditugu, ¿zergatik gaitzak artu ez?»

4) Job-ek bere itxaropena Jainkoagan daukala aitortzen du.— Job-ek iru adizkide zintzo zeuzkan, eta ez-bear oiek jakin zituztenian bera postutzeko asmoz etorri zitzaizkion, t'iya ezin ezagutzeko eran, oso itxuragabetua, arkitu zuten; eta negarra zeriotea, beren soñekoak urratuaz, exeri ziran lurrean, et'antxe, zazpi egun eta zazpi gau, itzegingabe, igaro zituzten; jaundia ta beltza baizan naigabe ura! Atsenean Job bera, bere samintasun zakona azaltzen asi zitzaien; et'orduan iru lagunak zorrotz-zorrotz aurrezka jarri, ta obenlari zala-ta, Jainkoak orregatik naigabetzen zuala-ta, ekin zioten. Job-ek guzia entsun eta zion: «Jainkoak ilko banindu ere, beragan daukan itxaropenik ez nuke galduko. Nere biziera nolakoa izan dan, berak daki. Urrea ona edo txarra dan su-katilluan ikusten dan eran, ni nolekoa naizen naigabe-aldi ontan ikusten ari da. Nere urratsak bide zuzenetik ez dute inoiz ere okerrera jo. Erruki zaitezte ba, erruki zaitezte nigaz, zuek nera lagun maite oiek; Jainko-eskuak ikutzen bainau. *Baña, nere Gaizkutzallea bizidala zinisten det; baita ere azkenengo egunean lurretik piztuko naizela; ta berriro nere narruz janzi, ta nerean dan aragiz Jainkoa ikusiko det. ¡Orixe bai ikusiko detala! ¡ta gañera neure-neuriak diran begiz! Itxaropen au, kolkoaren barrenbarrenian itsasila dago.*»

5) Jainkoak biurtzen dizka Job-i galdu zituan ogasunak eta beste ainbeste.—Jobek eta lagunak beren eleak amaitu zituztenian, zorrumbillo baten erdian azaldu zan Jainkoa ta Job-en lagunai esan zien: «Sutu naiz zuen kaltez; esan dituzuten itz-oiek zuzenak ez dira-ta. Opari bat eskeñi zazute, arren; eta Job nere jopuak, zuengatik eskatuko du». Olaxe egin zuten; eta Job-en bere lagunen aldezko otoitza Jainkoak entzun zuen. Jaunak eman zizkan Job-i len izan zituen ogasun guziak, beste ainbeste geigorekin; eta zazpi seme t'iru alaba ere bai. Job, beste 140 urte bizi zan eta bere aurren aurrak laugarren belauneraño ikusi zituen.

*Gizon-zintzoaren naigabeak alditxo bat; gero, ordain-alaig arria izango du. (Eccls. I, 29).*











